**PROGRAMA**
2224 EUSKAL HERRIKO POLIZIA IKASTEGIA

**ARDURADUNA**
45 EUSKAL HERRIKO POLIZIA IKASTEGIA
EUSKAL HERRIKO POLIZIAREN IKASTEGIKO ZUZENDARIA

***PROGRAMA***
*2224 ACADEMIA DE POLICÍA DEL PAÍS VASCO*

***RESPONSABLE***
*45 ACADEMIA DE POLICÍA DEL PAÍS VASCO*
*DIRECTOR DE LA ACADEMIA DE POLICÍA DEL PAÍS VASCO*

HELBURUA

1. ERTZAINTZAKO EDO UDALTZAINGOKO ESKALA ETA KATEGORIETAN SARRERA.
2. ESPEZIALIZAZIO PROZESUAK.

*OBJETIVO*

*1. INGRESO EN LAS ESCALAS Y CATEGORIAS DE LA ERTZAINTZA O LA POLICIA LOCAL.*
*2. PROCESOS DE ESPECIALIZACION.*

BETETZE MAILA

Honela ekin zaie Erakunde Autonomo honek 2010eko ekitaldirako programatu dituen helburuei.

Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiak 500 plaza hautatu ditu, 56 hautapen-prozesuri dagozkionak, bai Ertzaintzarena zein Udaltzaingoena (43 udalerri); bereziki, aipagarriena da Ertzaintzaren Komisario kategorian sartzeko hautaketa prozedura.

Euskal Herriko Polizia Ikastegiak prestakuntza-ekintzak burutu ditu, guztira, 11.573 pertsonari zuzenduta, Ertzaintzarenak 8.412, Udaltzaingoenak 1.954 eta prestakuntza ez poliziala 1.207 direnak.

Era berean, BPT gidabaimena 153 pertsonek lortu dute. Beraietatik, 145 Ertzaintzaren kide dira (114 gizonezko eta 31 emakumezko), eta 8 pertsona udaltzainak dira.

Jarraipenaren ikuspuntutik, 378 lagunen praktika-aldia balioetsi da, horietako 153 Ertzaintzakoak dira (127 gizonezko eta 26 emakumezko) eta Udaltzaingoko 225 lagun (186 gizonezko eta 39 emakumezko), 43 udalerritakoak.

Ondoren, 2010eko ekitaldian helburuak betetzeko garatu diren jarduerak aurkeztuko dira:

1). Udaltzainei dagokienez, agente kategorian sartzeko oinarrizko ikastaroaren 4 edizio burutu dira, 22 udalerritako 134 lagunek (109 gizonezko eta 25 emakumezko) egin dute.

Era berean, Udaltzainen agente lehena kategorian sartzeko barne-sustapeneko ikastaroa 9 udalerritako 43 pertsonek (38 gizonezko eta 5 emakumezko) egin dute.

2). Ertzaintzaren Espezializatzeko prestakuntzari dagokionez, Bide Segurtasunean Espezializatzeko ikastaroa murriztua garatu da, 24 pertsonei zuzenduta, guztiak gizonezkoak.

Aipatzekoa da ikastaro horietako gaien aniztasuna, baita

*GRADO DE CUMPLIMIENTO*

*Los objetivos que este Organismo Autónomo había programado para el ejercicio 2010, se han abordado de la siguiente manera.*

*La Academia de Policía del País Vasco ha realizado o participado en la selección de 500 plazas, correspondientes a 56 procedimientos selectivos, tanto de la Ertzaintza como de los Cuerpos de Policía Local (43 municipios), siendo especialmente destacable el procedimiento selectivo para ingreso en las de Comisario o Comisaria de la Ertzaintza.*

*La Academia de Policía del País Vasco ha realizado acciones formativas destinadas a un total de 11.573 personas, pertenecientes 8.412 a la Ertzaintza, 1.954 a los Cuerpos de Policía Local y 1.207 a formación no policial.*

*Asimismo han obtenido el Permiso de Conducción BTP un total de 153 personas, de las cuales 145 personas (114 hombres y 31 mujeres), pertenecen a la Ertzaintza, y 8 personas pertenecen a los Cuerpos de Policía Local.*

*Desde el punto de vista de seguimiento, se ha realizado la valoración del período de prácticas de un total de 378 personas, de las cuales 153 personas (127 hombres y 26 mujeres), pertenecen a la Ertzaintza, y 225 personas (186 hombres y 39 mujeres) a los Cuerpos de Policía Local, correspondientes a 43 municipios.*

*A continuación, se exponen las actuaciones desarrolladas en el ejercicio 2010 dirigidas al cumplimiento de objetivos:*

*1). Se han desarrollado 4 ediciones de Curso Básico de Ingreso en la Categoría de Agente de la Policía Local, con 134 personas (109 hombres y 25 mujeres), pertenecientes a 22 municipios.*

*Asimismo se ha desarrollado Curso de Promoción Interna para Ingreso en la Categoría de Agente de Primero de la Policía Local para un total de 43 personas (38 hombres y 5 mujeres) de 9 municipios.*

*2). En relación a la formación en Especialización de la Ertzaintza, se ha desarrollado el Curso restringido de Especialización en Seguridad Vial, dirigido a 24 personas (todos ellos hombres).*

*Es de destacar la diversidad de materias sobre las que*

guztiz praktikoak izatea ere; lanpostuak eta eginkizun zehatzak betetzeko gaitasun eta trebetasunak eguneratzeko eta hobetzeko sortu dira eta horien artean bereziki garrantzitsuak dira hauek: Herritarren Segurtasunerako eta Babes eta Esku Hartze Unitaterako etengabeko prestakuntza, Poliziaren makila hedagarria, Dotaziko eskopeta egokitze Ikastaroa, Bideoaren transmisio digitalak Ikastaroa, Kanpoko desfibriladore automatikoaren erabilera etengabeko prestakuntza ikastaroa, Informaziorako giza iturrien tratamendua, Berri txarrak ematea, Errepideetako motozicletak erabiltzea, Garraioa eguneratze eta trebatze ikastaroa, Takografoa istripuen ikerketan ikastaroa, Cozart Testaren erabilera, Oinetakoen markak, Pneumatiko hatzak, Balistika forentsea, Jagoletza eta Jarraipena, Terrorismo islamikoa (ekintzetarako prozedurak), eta.

*han versado todos estos cursos, así como su carácter eminentemente práctico, dirigidos tanto a la actualización y perfeccionamiento de conocimientos y destrezas para el desempeño de puestos de trabajo y funciones concretas, entre las cuales son especialmente relevantes la Formación Continua de Seguridad Ciudadana, y para la Unidad de Protección e Intervención, Bastón Policial extensible, Curso de adaptación a la nueva escopeta de dotación, Curso de transmisiones digitales de vídeo, Formación continuada en el uso del desfibrilador externo automático, Tratamiento de fuentes humanas de información, Comunicación de malas noticias, Conducción de motocicletas de carretera, Actualización y perfeccionamiento en materia de transportes, El tacógrafo en la investigación de accidentes, Utilización del test de Cozart, Huellas de calzado, Huellas de neumático, Balística forense, Vigilancia y seguimiento, Terrorismo islámico (procedimientos operativos), etc.*

Hobekuntza profesionala izateko beharrek hainbat ikastaro, jardunaldi edo mintegi egitea zehaztu dute kanpoko erakundeek emanda, hauek bezalako gaietan: Auzitegiko Antropologia, Suteak elektrizitateagatik, X ixpiak Ikuskatzeko Ekipoen gainbegiratzaileentzat Babes erradiologikoari buruzko ikastaroa, Begizko ikuskapenei buruzko ikastaro aurreratua, Forenste Irudiaren berriztatzea.

*Las necesidades de perfeccionamiento profesional han determinado la realización de una serie de cursos, jornadas o seminarios impartidos por entidades externas especializadas en materias tan variadas como Antropología Forense, Curso de Incendios por causas eléctricas, Curso de Protección Radiológica para supervisores de Equipos de Rayos X de Inspección, Curso avanzado de Inspecciones Oculares, Restauración de Imagen Forense.*

Prestakuntza ez poliziala:

*Formación no policial:*

Anbulatziak gidatzeko ikastaroa eta eguneratze ikastaroa: “Segurtasun pribatuetako eskoltzentzako babes teknikak”.

*Curso de conducción de ambulancias y curso de actualización: “Técnicas de Protección para Escoltas de Seguridad Privada”.*

Ertzaintza euskalduntzea:

*Euskaldunización de la Ertzaintza*:

Hizkuntza-gaikuntzako hainbat ikastaro (euskaraz) egin dira, horietan 93 funtzionariok (78 gizonezko eta 15 emakumezko) hartu dute parte. Horiek egin eta gero, Ertzaintzaren 23 hizkuntza eskakizun (1HE) egiaztatu dira (18 gizonezko eta 5 emakumezko):

*Se han impartido diversos cursos de capacitación lingüística de Euskera, en los que han tomado parte 93 funcionarios y funcionarias de la Ertzaintza (78 hombres y 15 mujeres). Tras realizarlos, se han acreditado 23 perfiles lingüísticos (PL1) de la Ertzaintza (18 hombres y 5 mujeres):*

Ertzaintzaren hautaketa-prozedura askotan meritutzat balioesteko hainbat mailaketa proba egin dira, hortaz, 3 hizkuntza-eskakizun (1HE) egiaztatu dira (3 gizonezko).

*Se han realizado diferentes pruebas de nivel para que obrara como mérito en diferentes procedimientos selectivos en el seno de la Ertzaintza, en los que se ha producido la acreditación de 3 perfiles lingüísticos (PL1) de la Ertzaintza (3 hombres).*

Guztira, Profilen erregistroan 159 Hizkuntza Eskakizun (1HE) jaso dira, 136 gizonezkori eta 23 emakumezkori dagozkionak.

*En total, se han inscrito en el Registro de perfiles un total de 159 Perfiles Lingüísticos (PL!), correspondientes a 136 hombres y 23 mujeres.*

Hainbat udalekin lankidetzan aritu dira, hautapen prozesuetako deialdirako oinarriak egiten eta horri buruzko kontsulta tekniko guztiei erantzun zaie.

*Se ha colaborado con diversos ayuntamientos en la elaboración de bases de convocatoria de procedimientos selectivos, dando respuesta a cuantas consultas técnicas se han dirigido al respecto.*

| **KOSTU / *COSTE*** | | **AURREKONTU GAIN %a** |
|---|---|---|
| **KAPITULUAK / *CAPITULOS*** | **ZENBATEKOA *IMPORTE*** | ***% SOBRE PRESUPUESTO*** |
| | (Milaka Euroak) *(Miles de Euros)* | |
| Langile Gastuak<br>*1 - Gastos de Personal* | 8.152 | 93% |
| Funtzionamendu Gastuak<br>*2 - Gastos de funcionamiento* | 5.790 | 90% |
| Inbertsio Errealak<br>*6 - Inversiones reales* | 325 | 34% |
| Finantza-Aktiboen gehikuntza<br>*8 - Aumento de activos financieros* | 23 | 50% |

| **SARRERAK / *INGRESOS*** | | **AURREKONTU GAIN %a** |
|---|---|---|
| **KAPITULUAK / *CAPITULOS*** | **ZENBATEKOA *IMPORTE*** | ***% SOBRE PRESUPUESTO*** |
| | (Milaka Euroak) *(Miles de Euros)* | |
| Tasak, Salneurriak eta Zuzb. Publikoko B. Batzuk<br>*3 - Tasas, precios públ y otros ingresos derecho Público* | 110 | 219% |
| Gastu Arruntetarako Transf. eta Dirulaguntzak<br>*4 - Transf. y subv. para gastos corrientes* | 12.915 | 99% |
| Ondare-Sarrerak<br>*5 - Ingresos Patrimoniales* | 36 | 359% |
| Finantza-Aktiboen Gutxitxea<br>*8 - Disminución de activos financieros* | 13 | -- |